



## **Aurreiazko genero eraginaren txostena**

## **Informe de evaluación previa de impacto de genero**

Foru Dekretua, zeinaren bidez garatzen baitira plataforma digitaletako operadoreek eman behar duten informazioaren nahitaezko truke automatikoaren esparruan bete beharreko arauak eta prozedurak, eta Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen baita. Horrekin gure ordenamendura ekartzen da Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena.

### **1. Sarrera**

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta

Decreto Foral por el que se desarrollan las normas y los procedimientos de diligencia debida en el ámbito del intercambio automático obligatorio de información comunicada por los operadores de plataforma y se modifica el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, en transposición de la Directiva (UE) 2021/514 del Consejo de 22 de marzo de 2021 por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad.

### **1. Introducción**

Este informe tiene como objetivo dar cumplimiento a lo establecido en el artículo



gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapidetzeko orduan, generoaren eraginaren alde aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

Genero eraginaren alde aurretiko ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.
- genero eraginaren alde aurreko ebaluazioa.
- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.

27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Según el mismo, los anteproyectos de Norma Foral y los proyectos de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en su proceso de elaboración y tramitación, se acompañarán del correspondiente informe de evaluación previa de impacto de género.

Ese informe de evaluación previa del impacto en función del género deberá de constar de las siguientes partes:

- la descripción general del proyecto de norma o de disposición de carácter general.
- la evaluación previa del impacto en función del género.
- las medidas para eliminar las desigualdades identificadas y promover la igualdad de mujeres y hombres en función de la evaluación de impacto de género realizada



## 2. Arau aldaketak

Ekonomiaren digitalizazioak planteatzen dituen erronkei aurre egiteko eta zerga administrazioei zergak hobeto eta modu eraginkorragoan biltzen laguntzeko, azkenaldian aurrerapen esanguratsuak egiten ari dira nazioartean, herrialdeen arteko informazio-trukerako mekanismoak indartzeko.

Batzuetan, neurriak nahitaez bete beharreko Europar Batasuneko zuzentarauen bidez arautzen dira, eta Gipuzkoako ordenamendura ekarri behar dira; beste batzuetan, berriz, herrialdeen artean sinatutako alde anitzeko akordioak dira.

Ildo horretan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Batzar Nagusietan foru arauaren proiektu bat izapidetzen ari da, informazio betebeharrak eta arreta egokiko betebeharrak arautzeko, elkarlaguntzaren eremuan behartuta dauden plataforma operadoreen informazio aitortpenari dagokionez. Bertan ezartzen da erregelamendu bidez garatuko direla arreta egokirako arauak eta prozedurak, bai eta

## 2. Modificaciones normativas

Con el fin de abordar los desafíos que plantea la digitalización de la economía y ayudar a las administraciones tributarias a recaudar los impuestos de una forma mejor y más eficiente, últimamente se están dando avances significativos a nivel internacional en el fortalecimiento de los mecanismos de intercambio de información entre países.

Algunas veces las medidas se regulan a través de directivas de la Unión Europea de obligado cumplimiento que resultan necesarias transponer al ordenamiento de Gipuzkoa, y otras veces, se trata de acuerdos multilaterales suscritos entre países.

En este sentido, se está tramitando en las Juntas Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa un proyecto de norma foral para regular las obligaciones de información y de diligencia debida relativas a la declaración informativa de los operadores de plataforma obligados en el ámbito de la asistencia mutua. En el mismo, se establece que reglamentariamente se desarrollarán las normas y procedimientos de diligencia



erregistratzeko eta informazioa emateko betebeharrak eta erabilitako terminoen esanahia ere.

Betebehar horiek bete ahal izateko, honako alderdi hauek ezartzen dira, bestek beste:

- zein plataforma operadore egongo diren behartuta informazioa jakinaraztera.
- zer informazio bildu beharko duten "saltzaileei" buruz: identifikazio datuak, helbidea...
- datuak biltzeko, egiaztatzeko eta zuzentzeko egin beharreko prozedurak.
- komunikazioaren epeak.

### **3. Genero eragina**

#### **3.1 Genero egokitasuna**

Proiektu honetan jasotako neurrien helburua foru arau batean jada onartuta dauden zenbait neurri garatzea da.

debidu, así como las obligaciones de registro y suministro de información, y también el significado de los términos utilizados.

A efectos de que se pueda cumplir con esas obligaciones, se establece, entre otros aspectos:

- que operadores de plataforma estarán obligados a comunicar la información.
- que información sobre los "vendedores" deberán recopilar: datos identificativos, dirección..
- los procedimientos de recopilación, verificación, corrección de datos que deben realizar.
- los plazos de la comunicación.

### **3. Impacto de género**

#### **3.1. Pertinencia de género**

El objetivo de las medidas recogidas en este proyecto es desarrollar una serie de medidas ya aprobadas en una norma foral.



Horrek balioko du iruzur fiskala, zerga ihesa eta zerga saihestea detektatzeko eta horiei aurre egiteko. Horrela, EBko eremuan informazioaren trukerako eta administrazio lankidetzarako dagoen esparrua optimizatuko da, ekonomiaren digitalizazioak planteatzen dituen erronkei helduko zaio eta zerga administrazioei zergak hobeto eta eraginkortasun handiagoz biltzen lagunduko dio.

Halere, kontuan izanda bere xedea iruzurraren, zerga ihesaren eta zerga saihestearen aurka borrokan jardutea dela, proposatutako aldaketak eraginkorragoak egingo ditu jarduketa tributarioak, eta horiek, azkenean, positiboki eragingo dute zerga sistemaren funtzionamendu orokorrean.

Eragina izango du, hasiera batean eta modu zuzenean, pertsona edo entitateei.

Hortaz:

- amaierako talde hartzailearen barruan pertsona fisikoak daude.
- xedapen normatiboak eragina duela emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko edota kontrolatzeko moduan.

Ello servirá para detectar y combatir el fraude fiscal, la evasión fiscal y la elusión fiscal. De esta manera, se optimizará el marco existente en el ámbito de la UE para el intercambio de información y la cooperación administrativa, se abordarán los retos que plantea la digitalización de la economía y contribuirá a una mejor y más eficaz recaudación de los impuestos a las administraciones tributarias.

Si bien, y teniendo en cuenta que el objetivo de dicha medida es luchar contra el fraude fiscal, la evasión fiscal y la elusión fiscal, la modificación propuesta provocará una mayor eficacia de las actuaciones tributarias, que al final repercutirán en un mejor funcionamiento del sistema tributario en general.

Afectará, en principio y de manera directa, a personas o entidades.

Por tanto:

- dentro del grupo destinatario final están las personas físicas.
- la disposición normativa afecta al acceso y/o control de los recursos por parte de las mujeres y los hombres.



Beraz, ondorioztatu behar da egokia dela arau aurreproiektua genero ikuspegitik aztertzea.

### 3.2. Genero eraginaren balorazioa

Arreta egokiko prozeduren bidez, "informazioa jakinaraztera behartuta dauden plataforma operadoreek" pertsona fisikoa den "saltzailearengandik" lortu eta bildu beharko dituzte beren identifikazio datuak (izen-abizenak, helbidea, identifikazio fiskaleko zenbakia...). Gainera, datu horiek egiaztapen prozedura batzuk bete beharko dituzte, datu horiei koherentzia emateko.

Prozedura horiek ezarri ondoren, pertsona fisiko saltzaileen informazio sendoa eta kalitatezkoa eskuratu ahal izango da. Informazioa modu antolatuan eta sistematikoan gurutzatu ahal izango da zergen datu baseekin, eta saltzaileei buruzko informazioa sexuaren arabera berezita aztertu ahal izango da, egon daitezkeen genero arrakalak identifikatzeko

Así pues, se determina que es pertinente el análisis de género del anteproyecto normativo.

### 3.2 Valoración del impacto de género

A través de los procedimientos de diligencia debida los "operadores de plataforma obligados a comunicar información" estarán obligados a obtener y recopilar del "vendedor" que sea persona física sus datos identificativos (nombre y apellidos, domicilio, número de identificación fiscal...). Además, esos datos deberán cumplir con una serie de procedimientos de verificación para dar coherencia a los mismos.

Una vez establecidos esos procedimientos se podrá disponer de información consistente y de calidad de las personas físicas vendedoras. La misma se podrá cruzar de manera organizada y sistemática con las bases de datos tributarias, y se podrá analizar la información desagregada por sexo de las personas vendedoras para identificar posibles brechas de género y



eta etorkizunean neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko.

Beraz, proiektu honetan ezarritako prozeduren ondorioz informazio gehiago eta hobea izateak eragin positiboa izan lezake emakumeen eta gizonen berdintasunean.

Azkenik, hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, proiektuaren terminoak egokitu dira. Hala ere, "vendedor" eta "vendedores sujetos a revisión" terminoak ez dira aldatu, Zuzentarauan kontzeptu horietan definituta daudelako, eta ahalik eta zehatzenak izateko.

Donostia, 2023ko azaroaren 29a

poder tomar en un futuro medidas correctoras.

Por tanto, la mayor y mejor disponibilidad de información como consecuencia de los procedimientos establecidos en este proyecto, podría impactar de manera positiva en la igualdad de mujeres y hombres.

Finalmente, y respecto al uso sexista del lenguaje, se ha procedido a adaptar los términos del proyecto. Sin embargo, no se han modificado los términos "vendedor" y "vendedores sujetos a revisión", por estar definidos en estos conceptos en la Directiva, y para ser lo más precisos posible.

San Sebastián, a 29 de noviembre de 2023

**Sin./Fir.: José Antonio Lapeira Oyarzabal**  
**AZTERLANETAKO ATALBURUA/ JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS**